



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE



GRADU AMAIERAKO LANAREN (GRAL) GIDA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta
Lehen Hezkuntza hirueleduna

(2026ko uztailaren 8ko Fakultate Batzarrean onartua)

AURKIBIDEA

0. SARRERA	4
1. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA	4
1.1. ZER DA GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)?	4
1.2. NOLA GAUZATU BEHAR DA GRALa?	4
1.3. ZEIN GRAL MOTA AURRERA ERAMAN DAITEZKE?	4
1.4. ZEINTZUK DIRA GRALaren HELBURUAK ETA GAITASUNAK?	5
2. HASIERAKO FASEA: MATRIKULAZIOA ETA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK	7
2.1. NOIZ MATRIKULATZEN DA GRALa, ETA ZEINTZUK DIRA HORRETARAKO BALDINTZAK?	7
2.2. ZEINTZUK DIRA GRALerako MATRIKULAK EMATEN DITUEN ESKUBIDEAK?	7
2.3. ZEINTZUK DIRA GRALa AURRERA ERAMATEKO GAIK?	7
2.4. IKASLEEK GRALerako GAIK PROPOSA DITZAKETE?	7
2.5. NOIZ AUKERATZEN DA GRALerako GAIA?	7
2.6. AUKERATUTAKO GAIA ETA ESLEITUTAKO ZUZENDARIA ZENBAT DENBORAZ MANTENDUKO DA?	8
2.7. NOIZ GAUZATZEN DA DESESLEIPENA?	8
2.8. ZER GERTATZEN DA DESESLEIPENA GAUZATUZ GERO?	8
2.9. ZER GERTATZEN DA HIRUGARREN IKASTURTEAN (HALA ADOSTU BADA) GRALa GAINDITZEN EZ BADA?	8
2.10. IKASLEEK PROZESUAN ZEHAR ESKA DEZAKETE ESLEIPENA BERTAN BEHERA UZTEA?	8
2.11. KASU HORRETAN IKASLEEK AUKERATUTAKO GAIA MANTENDUKO LUKETE?	8
2.12. NOIZ ARTE EGIN DAITEKE GRALerako GAI AUKERAKETA?	8
2.13. ZER EGIN BEHAR DUTE GRADUA BUKATZEKO GRALa BESTERIK EZ DUTEN EHUKO IKASLEEK?	8
3. GARAPEN FASEA: LANAREN GARAPENA ETA PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK	9
3.1. NOLA GAUZATZEN DA TUTORETZA PROZESUA?	11
3.2. NOLA PLANTEA DAITEZKE TUTORETZAK ETA ZER LANDU DAITEKE HORIETAN?	11
3.3. ZEINTZUK DIRA PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK?	11
ZUZENDARIAK	11
3.4. ZEINTZUK DIRA GRAL ZUZENDARIA IZATEKO BALDINTZAK?	11
3.5. ZEINTZUK DIRA GRAL ZUZENDARIKIDE IZATEKO BALDINTZAK?	11
3.6. ZEINTZUK DIRA GRAL ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK?	11
3.7. ZER GERTATZEN DA GRAL BATEKO ZUZENDARIA IRAUPEN LUZEKO BAJA EDO LITZENTZIA EGOERAN SARTZEN BADA, EDO IKASTEGIA UZTEN BADU?	12
IKASLEAK	12
3.8. ZEINTZUK DIRA GRAL IKASLEAREN EGINKIZUNAK?	12
EPAIMAHAIKIDIA	13
3.9. NOLA OSATZEN DA EPAIMAHAIKIDIA?	13
3.10. ZEINTZUK DIRA EPAIMAHAIKIDIA BAKOITZAREN EGINKIZUNAK?	13
3.11. ZEINTZUK DIRA EPAIMAHAIAREN EGINKIZUNAK?	13
GRAL DEKANORDETZA ETA TEKNIKARIA	14
3.12. ZEINTZUK DIRA GRAL DEKANORDETZAREN EGINKIZUNAK?	14
3.13. ZEINTZUK DIRA TEKNIKARIAREN EGINKIZUNAK?	14

4. AMAIERAKO FASEA: IDATZIZKO TXOSTENA, ADDI PROZESUA ETA DEFENTSA	15
IDATZIZKO TXOSTENA	15
4.1. AUKERA DAITEKE GRALa AURRERA ERAMATEKO HIZKUNTZA?	15
4.2. ZEINTZUK DIRA GRALa AURRERA ERAMATEKO IRIZPIDE NAGUSIAK?	15
4.3. ZEIN DA GRALerako PROPOSATZEN DEN EGITURA?	16
4.4. ZEIN DA GRALaren LUZERA ETA FORMATUA?	16
4.5. PLAGIOA EDO ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERABILERA	16
4.6. ZER GERTATZEN DA PLAGIOA EDO ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERABILERA DESEGOKIA EGON DELA EGIAZTATZEN BADA?	17
ADDI PROZESUA	17
4.7. ZER DA ADDI?	17
4.8. ZER DA ADDI AKADEMIKOA?	17
4.9. NOIZ IGO BEHAR DA LANA ADDI AKADEMIKORA?	17
4.10. ADDI AKADEMIKORA IGO BEHARREKO LANAREN BERTSIOAREKIN KONFUNDITUZ GERO, POSIBLE AL DA ZUZENTZEA?	18
4.11. ZER DA ADDI PUBLIKOA?	18
DEFENTSA	18
4.12. ZEINTZUK DIRA DEFENTSA ESKAERA EGIN AHAL IZATEKO BALDINTZAK?	18
4.13. ZEIN DA AHOZKO DEFENTSA AURRERA ERAMATEKO PROZEDURA?	18
4.14. AHOZKO DEFENTSAREN GRABAZIOA ESKA DAITEKE?	18
4.15. EPAIMAHAIAREN ANTOLAKETARI DAGOKIONEZ, ZENBAT DENBORA GOMENDATZEN DA IKASLE BAKOITZEKO?	18
4.16. ZER EBALUATZEN DU GRALaren ZUZENDARIAK?	18
4.17. ZER EBALUATZEN DU EPAIMAHAIK?	19
4.18. NOLA LORTZEN DA GRALaren AZKEN KALIFIKAZIOA?	19
4.19. ZEIN DA OHOREZKO MATRIKULA PROPOSATZEKO PROZEDURA?	19
4.20. ZEIN DA GRALa ADDI PUBLIKOAN AGERTZEKO PROZEDURA?	20
4.21. ZEIN DA GRAL KALIFIKAZIOA BERRIKUSTEKO PROZEDURA?	20
5. ERANSKINAK	21
1. ERANSKINA. Zuzendariaren ebaluazio txostena	21
2. ERANSKINA. Epaimahaikidearen ebaluazio txostena	23
3. ERANSKINA. Epaimahaikidearen akta	24
4. ERANSKINA. GRALa ADDI publikoan agertzeko baimena	25
5. ERANSKINA. GRALaren defentsa grabatzeko eskaera	26

0. SARRERA

Gida hau Gradu Amaierako Lana (aurrerantzean, GRAL) bideratzeko prozesuan parte hartzen duten eragile guztiei (ikasleei, zuzendariei eta epaimahaiei) laguntza eskaintzeko asmoz sortu da. Bertan, EHUko arautegietan zehaztutakoaren arabera, eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean hartutako akordioen arabera, GRALa aurrera eramateko irizpideak jasotzen dira.

1. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA

1.1. ZER DA GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)?

GRALa 12 kredituko irakasgaia da eta bere prestakuntza-prozesuaren bidez, ikasle bakoitzak erakutsiko du Graduan eskatutako konpetentziak bereganatu dituela.

1.2. NOLA GAUZATU BEHAR DA GRALa?


[Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegiak](#) bere 2. artikuluan jasotzen duenez, ikasle bakoitzak bakarka egin behar du bere GRALa (planteamendua, garapena eta idazteko lana), eta ezin da beste inorekin elkarlanean egin. Lan autonomoa da, ikasle bakoitzak bere ekimenez egingo du eta bere gain hartuko du lana garatzeko erantzukizuna. Horretarako, zuzendari baten laguntza izango du, zeinak bideratuko duen lana egiteko eta defentsa prestatzeko prozesua.

1.3. ZEIN GRAL MOTA AURRERA ERAMAN DAITEZKE?

GRALaren abiapuntua ikasleek Graduan zehar lortutako prestakuntza izango da:

1. irudia: Haur Hezkuntza Graduaren grafikoa





Hezkuntza eta Kirol Fakultatean GRALa izan daiteke:

- Graduarekin lotutako lan esperimental edo teorikoa izango da, hezkuntza esparruan gara daitekeena.
- Prestakuntza, berrikuntza edo ikerketa hastapenerako lan bat.

GRALetan zainduko da EHUren IKD ⁱ³ hezkuntza eredia sustatzea; erakundeek dituzten benetako beharrei edo erronkei buruzko GRALak sustatuko dira, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako GRALak egitea bultzatuko da.

1.4. ZEINTZUK DIRA GRALaren HELBURUAK ETA GAITASUNAK?

GRALaren xede nagusiei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- GRALA titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzea.
- Datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzea.
- Ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari lotutako gai nabarmenak buruzko gogoeta egitea eta iritzia ematea.
- Gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izatea.

Aurrekoarekin lotuta, honako hauek dira Unibertsitate Kontseiluak onartutako GRAL gaitasunak:

- Eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoa erabiltzea, teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea eta ezagutza berria sortzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin lotutako arazoak konpontzeko.
- Informazio egokia hautatzea, aztertzea eta sintetizatzea eskolatzeko prozesuak hobetzeko proiektuak diseinatze aldera.

- Autonomia erakustea: hausnartzean, argudiatzean, iritzi akademikoak eta profesionalak ematean, hezkuntza arloko erabakiak hartzean eta arazoak konpontzean, bai bakarka eta bai lantaldeen baitan.
 - Komunikazio gaitasuna erakustea ahoz nahiz idatziz, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.
-

2. HASIERAKO FASEA: MATRIKULAZIOA ETA KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

2.1. NOIZ MATRIKULATZEN DA GRALa, ETA ZEINTZUK DIRA HORRETARAKO BALDINTZAK?

GRALa uztailleko automatrikula prozesuan matrikulatu behar da; honako hauek dira horretarako errespetatu behar diren ezinbesteko baldintzak:

- Gradua amaitzeko behar diren irakasgai guztietan matrikulatuta egotea.
- Gutxienez 168 kreditu gaindituta edukitzea

2.2. ZEINTZUK DIRA GRALerako MATRIKULAK EMATEN DITUEN ESKUBIDEAK?

GRAL irakasgaia matrikulatzeak zuzendaritza baten laguntza prozesua aktibatuko du; horrez gain, defentsarako bi deialdirako¹ eskubidea lortuko da.

2.3. ZEINTZUK DIRA GRALa AURRERA ERAMATEKO GAIK?

GRALa aurrera eramateko proposatzen diren gaiak ekainean argitaratuko dira Fakultateko webgunean; gai horiek Fakultateko Sailek proposatutakoak dira.

2.4. IKASLEEK GRALerako GAIK PROPOSA DITZAKETE?

Bai, gairen bat proposatu nahi izanez gero, GRALa egin aurreko ikasturtearen bigarren lauhilekoan zehar zabalduko da horretarako aukera; GRALerako Dekanordea arduratuko da horretarako deialdia eta prozedura zabaltzeaz. Hala ere, honako alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Ikasle bakoitzak gai bakar bat proposatu ahal izango du. Proposamena egoki arrazoitu beharko da eta Graduaren eremu zientifikoarekiko egokitasuna ere erakutsi beharko du.
- GRAL Dekanordeak zabalduko deialdia amaitzean, bera arduratuko da ikasleen proposamenak Sailetako koordinatzaileei helarazteaz.
- Sailetako irakasleren batek gai horietakoren bat edo batzuk zuzentzeko ardura hartu nahi badu, GRAL Dekanordeari jakinaraziko dio eta honek Fakultateko webgunean ekainean argitaratuko den zerrendan jasoko du. Sailetako irakasleek aukeratu gabe uzten dituzten gaiak ez dira jasoko aipatutako zerrendan.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ikasle batek gai bat proposatzea eta Sailaren bateko irakasleren batek horren zuzendaritza onartzeak ez duela bermatzen ikasle horrek gai hori aukeratu ahal izango duenik, gai aukeraketa espediente akademikoaren arabera gauzatzen baita.

2.5. NOIZ AUKERATZEN DA GRALerako GAIA?

GRALerako gaia eta esleitutako zuzendaria automatrikula prozesuan aukeratuko da. Ikasleek espediente akademikoaren arabera hurrenkeran aukeratuko dute gaia.

¹ Hezkuntza eta Kirol Fakultatean hiru defentsa-epealdi daude: otsailekoa, ekainekoa eta irailekoa.

2.6. AUKERATUTAKO GAIA ETA ESLEITUTAKO ZUZENDARIA ZENBAT DENBORAZ MANTENDUKO DA?

Gaiaren eta zuzendariaren esleipena bi ikasturtez mantendu ahal izango da; bi ikasturte igaro ondoren, automatikoki GRAL gaia eta zuzendaria desesleituko dira; salbuespen moduan, ikasleak eska diezaioke zuzendariari hirugarren ikasturte baterako aukera, beti ere zuzendariaren esku geratuko dela aukera hau ematea. Esleipena mantentzea onartzen bada, zuzendariak GRAL Dekanordeari eta teknikariari jakinarazi behar die posta elektroniko bidez.

2.7. NOIZ GAUZATZEN DA DESESLEIPENA?

Urriaren bukaerarako GRAL Dekanordetzak eta teknikariak egiaztatuko dute zeintzuk diren bi ikasturteko esleipena agortu dutenak eta, zuzendariaren aldetik kontraktorik ailegatu ez bada, desesleipena gauzatuko dute.

2.8. ZER GERTATZEN DA DESESLEIPENA GAUZATUZ GERO?

Desesleipen-kasuetan, ikasleak prozesu osoa errepikatu beharko du eta esleitu gabe geratu diren gaien artean aukeratu beharko du.

2.9. ZER GERTATZEN DA HIRUGARREN IKASTURTEAN (HALA ADOSTU BADA) GRALa GAINDITZEN EZ BADA?

Kasu horretan ikasleak prozesu osoa errepikatu beharko du: gai eta zuzendari berri bat aukeratu beharko luke; hautaketa hori, gainera, gainerako ikasleen atzetik gauzatuko luke.

2.10. IKASLEEK PROZESUAN ZEHAR ESKA DEZAKETE ESLEIPENA BERTAN BEHERA UZTEA?

Larritasun handiko arrazoiak² direla eta, ikasleek eska dezakete esleipena bertan behera uztea bi ikasturteko epea agortu baino lehen. Egoera eta arrazoiak justifikatu beharko dituzte GRAL Dekanordeari helarazitako korreo baten bitartez eta honek beharrezkoa den prozedura aktibatuko du Practicum eta GRAL batzordearekin.

2.11. KASU HORRETAN IKASLEEK AUKERATUTAKO GAIA MANTENDUKO LUKETE?

Bai, zuzendari batenganako desesleipena gauzatuz gero, irakasle horren Sailak jarri beharko du jakintza arlo berdineko beste zuzendari bat 10 egun naturaleko epean; zuzendari horrek ikasleak aukeratutako gaia zuzentzen jarraitu beharko du.

2.12. NOIZ ARTE EGIN DAITEKE GRALerako GAI AUKERAKETA?

Azaroaren 30etik aurrera ezin izango da GRALerako gairik aukeratu.

2.13. ZER EGIN BEHAR DUTE GRADUA BUKATZEKO GRALa BESTERIK EZ DUTEN EHUKO IKASLEEK?

Automatrikula prozesuan matrikulatu behar dute GRALa; epe horretan egin ezean, ondoren ikasketak berrartzeko eskaria egin beharko dute Idazkaritzan. Dekanoaren esku geratzen da ikasketak berrartzeko eskariak onartzea ala ez onartzea.

² Larritasun arrazoiaren izaeraren arabera, Fakultateko Bizikidetzak Batzordearen parte hartzea beharrezkoa izan daiteke.

3. GARAPEN FASEA: LANAREN GARAPENA ETA PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

Jarraian jasotzen dira GRALaren faseak, gaitasun espezifikoak eta ikaskuntzaren emaitzak:

LANA	FASEAK	GAITASUN ESPEZIFIKOAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAIT. (BOE)
1. HASIERAKO TXOSTENA	1. GAIA AUKERATZEA	Gaia zehaztea eta lana egiteko galdera eta/edo helburuak jartzea	Txosten idatzian adierazi ditu galdera eta helburu multzoa. Argudiatu egin du eta harremanak egin ditu galdera eta helburuen artean eta loturak bilatu ditu aurreko bizipen, esperientzia eta hausnarketekin. Lanaren garapena nola bideratu adierazi du. Gaia lantzeko eskema operatiboa prestatu eta zehaztu du.	1 eta 3
		Aukeratutako gaiari buruzko hasierako dokumentu bilaketa egitea	Gaiaren deskribatzaile gakoak eta haiek hautatzeko prozesua jarri ditu. Bilaketaren historiala eta emaitzak deskribatu ditu. Modu argudiatuan aukeratu ditu erreferentzia dokumental egokiak, gaiaren esparru teorikoa eraikitzeko.	2
	2. PLANIFIKAZIOA	Gradu bukaerako funtsezko elementuen betekizuna identifikatzea eta ulertzea, eta aplikazio arlo batekin lotzea	Ezagutu ditu, egituratu eta antolatu ostean lanari forma emango dioten elementuak. Lotura koherenteak jarri eta justifikatu ditu, hartutako gaiaren eta iradokitako aplikazio eremuaren artean. Lana aplikatzeko testuingurua arrazoituz definitu du.	1, 2, 3
		Lanaren funtsezko elementuak justifikatuta antolatzea	Lanaren egitura definitu, ordenatu eta justifikatu du. Lanaren fase bakoitzean erabili beharreko baliabideak aurreikusi ditu.	2, 3
		Lana egiteko faseak aurreikusi eta denboran ordenatzea	Lanaren faseak justifikatuta aurreikusi eta ordenatu ditu. Kronograma baten bidez zehaztu ditu lanaren bilakaerak dituen une garrantzizkoenak. Zuzendariarekin adostu ditu laneko faseak eta hari dagokion kronograma.	3
		Lanaren egoerari buruzko txostena azaldu eta defendatzea zuzendariaren eta tutoretzako kideen aurrean.	Gaiaren garrantzia edo nagusitasuna justifikatu du, balizko aplikazio eremuarekin harremanetan jarritz. Lanaren funtsezko elementuak zentzuz aurkeztu eta lotu ditu. Arrazoituz aurkeztu ditu lana egiteko aurreikusitako faseak, eta hari dagokion kronograma. Ongi erakutsi ditu erabiliko dituen metodologia eta baliabideak.	1, 2, 3, 4

LANA	FASEAK	GAITASUN ESPEZIFIKOAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAIT. (BOE)
2. SEGIMENDU TXOSTENA	3. GARAPENA	Dokumentazio iturriak aukeratzea GRALaren esparru teoriko-erreferentziala Prestatzeko	Gaiari buruzko erreferentziarik nagusienak identifikatu ditu. Lanaren helburuak edo galderak kontuan zuzen hartuta aukeratu du informazioa.	1, 2
		Informazioa sartzeta, esparru teorikoaren prestakuntzan	Gaia kokatu du, hautatutako informazioa esanguratsua erabilia. Informazioa sartu du diskurtso koherentean. Esparru teorikoa bere lanarekin lotu du.	1
		Datuak jaso, aztertu eta interpretatzea	Datu bilketa nahikoa du, ordenatua. Datuak aztertu ditu eta interpretatu ditu. Argi aurkeztu ditu emaitzak. Ondorioak ateratu ditu emaitzetatik abiatuta. Iradokizunak egin ditu ondorengo lanetarako - egindakoari jarraipena emateko-.	1, 2, 3
		Ahoz eta idatziz zuzentasunez adieraztea, arloko hizkera zientifikoan duen trebetasuna erakutsiz, euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez.	GRALaren azken bertsioa idatzi du, idazketa akademikoaren urrats formalei jarraituz. Ahoz aurkeztu du bere lana bere parekoen aurrean, modu ordenatuan, eta entzuleria kontuan hartuta. Egin zaizkion galdera eta oharrei erantzun die, behar bezala argudiatuta.	4

LANA	FASEAK	GAITASUN ESPEZIFIKOAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAIT. (BOE)
3. AURKEZPEN ETA DEFENTSA	4. EMATEA ETA AURKEZPEN PUBLIKOA	Modu zuzen, koherente eta ordenatuan transmititzea (bai ahoz bai beste komunikazio baliabide baten bidez) egindako lanetik eratorritako emaitza nagusiak.	Zuzentasunez eman ditu lanean aztertu duen gaia aukeratzeko arrazoiak. Bere lanaren ekarpen nagusiak esplikatu eta oinarritu ditu, arreta berezia emanez haiek izan dezaketen interesari. Lana argi eta antolatuz erakutsi du. Komunikaziorako beste baliabide batzuk erabiltzeko (ez ahozkoak) aberastu eta arindu egin du azalpena. Denbora modu eraginkorrean antolatu du, azaldutako lanaren puntu edo atalen garrantziaren arabera.	4
		Modu egokian erantzutea, epaimahaiak eskatutako gai, zalantza edo argibideei.	Epaimahaiako kideek eskatutako arloen garrantziaren arabera antolatu ditu erantzunak, edo, dagokionean, irizpide koherentea izan du erantzun horiek lehenestean. Segurtasunez erantzun du, eta modu koherentean, egindako lanetik eratorritako emaitzen inguruan.	1, 2, 3, 4
		Ikasleak egindako lan eta/edo ikerketarekin lotutako etorkizuneko lan proposamenak egitea, bai gaiari dagokionez, eta bai jarraitutako prozedurari dagokionez.	Egindako lanarekin koherente diren lan eta/edo ikerketa posibleak iradoki ditu.	3

3.1. NOLA GAUZATZEN DA TUTORETZA PROZESUA?

GRALa egiteko prozesuak ia ikasturte osoa irauten du, eta jarraipena tutoretzen bidez egingo da. Tutoretza horien eginkizun nagusia ikasleen jarduera autonomoa gidatzea eta doitzzea da. Hala ere, GRALa aurrera eramatean sortzen diren arazoak planifikatzea, garatzea eta ebaztea ikasle bakoitzaren ardura izango da.

3.2. NOLA PLANTEA DAITEZKE TUTORETZAK ETA ZER LANDU DAITEKE HORIETAN?

Zuzendari bakoitzak erabaki dezake nola eskainiko dituen tutoretzak: beharraren arabera, tutoretza kolektiboak zein indibidualak antola daitezke.

Tutoretzetan landu daitezkeen edukiak askotarikoak izan daitezke: iturri bibliografikoak bilatzea, datu-baseak, idatzizko lanaren egitura, gai etikoak, estilo-eskuliburua, ahozko aurkezpenaren forma, defentsa prestatzeko moduari buruzko aholku praktikoak eta abar.

3.3. ZEINTZUK DIRA PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK?

GRAL prozesuan, oro har, ikasleak, zuzendariak, epaimahaiak, GRAL Dekanordetzak, GRAL Batzordeak eta teknikariak parte hartzen dute. Jarraian zehaztuko dira eragile horietako bakoitzaren eginkizun nagusiak:

ZUZENDARIAK

3.4. ZEINTZUK DIRA GRAL ZUZENDARIA IZATEKO BALDINTZAK?

GRAL zuzendariak Hezkuntza graduatan eskolak ematen dituen sail batekoak edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitako bat izan behar dira.

3.5. ZEINTZUK DIRA GRAL ZUZENDARIKIDE IZATEKO BALDINTZAK?

GRALaren zuzendarikide izan ahalko dira unibertsitatearekin lotura daukaten doktoreak eta doktorego aurreko kontratua daukatenak (baldin eta kontratuak horretarako aukera ematen badu), baldin eta zuzendarikide bat badago graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.

Ikasleak lan osoa edo zati bat EHU ez den erakunde batean egiten badu, zuzendaria unibertsitatetik kanpokoa izan ahalko da, baina graduan eskolak ematen dituen sail bateko irakasle bat edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitako irakasle bat zuzendarikide izango da.

3.6. ZEINTZUK DIRA GRAL ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK?

GRAL Zuzendariak jarraian zehazten diren eginkizunak bete behar ditu:

- GRALaren Gida ezagutzea eta errespetatzea
- Ikasleari gaia zehazteko aukera posibleak eskaintzea, ezarritako urratsak betez (izenburua, deskribapena, helburuak, egin beharreko lana, materiala, eta abar).
- Ikaslea gidatzea lana aurrera eramateko prozesuan
- Kontuan hartzea unibertsitateko araudietan eta ikastegiaren barne akordioetan aurreikusten diren egoerak, horiekiko behar den malgutasunaz jokatzuz.
- Lanaren prozesua eta edukia ebaluatzea.

- Ikaslearekin ADDI³ra igotzeko azken bertsioa adostea.
- Defentsaren aurretik, [Zuzendariaren ebaluazio txostena](#) (1. eranskina) betetzea eta GAURrera igotzea.
- Egiaztatzea ikasleak ADDIra igotako lana adostutako azken bertsioa dela eta, hala bada, itema onartzea; adostutako azken bertsioa ez balitz, ordea, itema ukatu beharko luke.
- Ikasleari defentsaren entsegu bat egiteko aukera eskaintzea.
- Epaimahaietan parte hartzea.
- Defentsa eskatu duen ikasle bakoitzari jakinaraztea defentsa-saioetarako lekua, eguna eta ordua.
- Epaimahaiaren aktan jasotako kalifikazioa GAURren grabatzea eta espedientera pasatzea.

3.7. ZER GERTATZEN DA GRAL BATEKO ZUZENDARIA IRAUPEN LUZEKO BAJA EDO LITZENTZIA EGOERAN SARTZEN BADA, EDOTA IKASTEGIA UZTEN BADU?

Honelako kasuetan zuzendari horren sailak jakintza arlo berdineko beste zuzendari bat esleitu beharko du 10 egun naturaleko epean, eta zuzendari horrek ikasleak aukeratutako gaia zuzentzen jarraitu beharko du; baja edo lizentziaren iraupenaren arabera (iraupen laburrekoa bada), gomendagarria da Sailak zuzendarikide bat jartzeko aukera aztertzea.

IKASLEAK

3.8. ZEINTZUK DIRA GRAL IKASLEAREN EGINKIZUNAK?

Ikasleak jarraian zehazten diren eginkizunak bete behar ditu:

- GRALaren Gida ezagutzea eta errespetatzea
- GRAL zuzendariarekin harremanetan jartzea prozesuari hasiera emateko.
- GRALa prestatzeko beharrezkoak diren lanak aurrera eramatea: gaia hautatzea (lan proposamena prestatzea), plangintza (zereginak entregatzeko egutegia prestatzea eta zuzendariarekin adostea...), garapena, lana entregatzea eta defendatzea. Horrek esan nahi du:
 - GRALa aurrera eramateko prozesuan inplikatzeko, ekarpenak eginez eta egin beharreko atazak ikuspegi propioz eta era autonomoan burutuz.
 - Unibertsitateak esleitutako posta elektronikoa erabiltzea.
 - Zuzendariak eskainitako hobekuntza proposamenak kontuan hartzea.
 - GRALaren defentsa eskaera egin GAURren bitartez.
 - Zuzendariarekin ADDIra igotzeko azken bertsioa adostea eta ADDIra igotzea.
 - GRAL defentsaren grabatua izatea nahi izanez gero, zuzendariari jakinaraztea eta grabaziorako eranskina (5. eranskina) helaraztea defentsa-eguna baino lehenago.
 - Lehen deialdian gainditu ezean, epaimahaiak eskainitako txostena kontuan hartzea eta beharrezko hobekuntzak egitea hurrengo deialdirako.
 - Asebetetze inkesta betetzea defentsa egunean.

³ **Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala** da, helburua duena Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren irakaslan eta ikerlanen ekoizpen intelektuala **sarbide ireki gisa** antolatu, artxibatu, zaindu eta hedatzea. ADDIk barne hartzen ditu doktorego eta masterretako tesiak, gradu amaierako lanak, zientzi artikulak, monografiak, liburuetakoa kapituluak, irakasleen lana, etab.

EPAIMAHAIA

3.9. NOLA OSATZEN DA EPAIMAHAIA?

Epaimahaia hiru kidez osatuta egongo da, eta honako hauek izango dira barneko rolak: burua, idazkaria eta kidea. Epaimahaia ezin da inoiz hiru kide baino gutxiagorekin aritu. Arrazoi justifikaturen bategatik irakasleren bat epaimahaian ezin bada egon, bere sailak ordezko bat izendatu beharko du.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako hauek izango dira Fakultateko GRAL Dekanordetzak kontuan hartuko dituen irizpideak epaimahaiak osatzeko garaian:

1. Zuzendari bakoitzak esleituta duen GRAL kopurua
2. Ahal den neurrian, saiatuko da hiru kideak sail edo jakintza arlo ezberdinetakoak izatea

3.10. ZEINTZUK DIRA EPAIMAHAIKIDE BAKOITZAREN EGINKIZUNAK?

Jarraian dituzue rol bakoitzari esleitutako ardurak:

- **EPAIMAHAIBURUA:** defentsa saiorako lekua, eguna eta defentsan arituko den ikasle bakoitzari esleitutako ordutegia teknikariari jakinarazi.
- **IDAZKARIA:** defentsa saiora epaimahaikideentzako ebaluazio-txostenak, Epaimahaiaren akta eta ADDI publikorako baimenaren inprimakiak eramane (2. 3. eta 4. eranskinak); horiez gain, ikasleentzako asebetetze inkesta eramango du.
- **KIDEA:** behin defentsak gauzatuta, epaimahaikideen ebaluazio-txostenak, Epaimahaiaren akta eta ADDI publikorako baimena (egotekotan) eskaneatuta bidali teknikariari.

Adierazitako rolei dagokienez, aipatu beharrekoa da GRAL Dekanordetzak saiakera egiten duela zuzendariak urtez urte rolak ez errepikatzeko. **Ardura hauek ikasturteko hiru defentsa-epaldietarako mantendu beharko dira. Era berean, garrantzitsua da kontuan hartzea epaimahaikide bakoitzak bere ebaluazio-txostena bete behar duela defentsa bakoitzean (2. eranskina).**

3.11. ZEINTZUK DIRA EPAIMAHAIAREN EGINKIZUNAK?

Epaimahaiak jarraian zehazten diren eginkizunak bete behar ditu:

- GRALaren Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Epaimahaiaren protokoloa errespetatzea; honako hauek dira protokoloak jasotzen dituen urratsak:
 - Behin epaimahaikide guztiak eta ikaslea defentsa saio publikorako bilduta, epaimahaiko buruak hasiera emango dio ekitaldiari, eta ikasleari jarraitu beharreko prozesua gogoraraziko dio: gehienez ere 20 minutu izango dituela aurkezpena egiteko eta, ondoren, epaimahaikideek komentarioak, iradokizunak edota galderak egingo dizkiotela.
 - Ikasleak aurkezpena amaituta, epaimahaiko buruak hasiera emango dio eztabaidari.
 - Epaimahaiko buruak bermatu beharko du ikaslearen aurkezpena eta ondorengo eztabaida begirunez gauzatuko direla; horretarako, egoki ikusiz gero, hitza eten ahal izango die ikasleari edo epaimahaikideei.
 - Behin defentsa bukatuta, epaimahaiko buruak ikasleari eta publikoari aretotik irtetzeko eta kanpoan apur bat itxoiteko eskatuko die. Tarte

horretan ikasleari GRAL prozesuari buruzko asebetetze inkesta betetzea eskatuko zaio.

- Tarte horretan epaimahaiak, epaimahaikide bakoitzaren ebaluazio txostenak kontuan hartuta, azken kalifikazioa adostuko du.
- Azken kalifikazioa adostuta, epaimahaiko idazkariak epaimahaiaren akta beteko du (3. eranskina).
- GRALaren azken kalifikazioak horretarako emango balu, epaimahaiak ohorezko matrikula emateko proposamena ados lezake (epaimahaiaren aktan aukera hori markatuz).
- Behin epaimahaiaren akta beteta, idazkariak ikasleari eta publikoari aretoan sartzen utziko die eta, guztiak zutik daudela, epaimahaiko buruak epaimahaiaren akta irakurriko du.
- GRALak 9 edo kalifikazio altuagoa eskuratu badu, ikasleari galdetuko zaio ea nahi duen bere lana ADDI publikoan agertzea; horrela izatekotan, hori baimentzeko dokumentua bete beharko du (4. eranskina).

GRAL DEKANORDETZA ETA TEKNIKARIA

3.12. ZENTZUK DIRA GRAL DEKANORDETZAREN EGINKIZUNAK?

GRAL Dekanordetzak jarraian zehazten diren eginkizun nagusi hauek ditu:

- GRAL Gidan jasotakoa bete dadin ahalbidetzea.
- Epaimahaien zerrenda osatzea.
- Epaimahai bakoitzeko burua, idazkaria eta kidea izendatzea; kargu hauek pertsona berberak beteko dituzte epaimahai bakoitzari esleitutako defentsa guztietan.

3.13. ZEINTZUK DIRA TEKNIKARIAREN EGINKIZUNAK?

Teknikariak jarraian zehazten diren eginkizun nagusi hauek ditu:

- GRAL Dekanordetzarekin elkarlanean aritzea.
 - Aplikatiboan beharrezkoak diren alderdiak kudeatzea.
-

4. AMAIERAKO FASEA: IDATZIZKO TXOSTENA, ADDI PROZESUA ETA DEFENTSA

GRALak gaiari eskatzen zaion sakontasuna, luzera eta berritasuna izan beharko du, aurreko tauletan deskribatutako emaitzen arabera.

IDATZIZKO TXOSTENA

4.1. AUKERA DAITEKE GRALa AURRERA ERAMATEKO HIZKUNTZA?

GRALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da. Hala ere, idatzizko lana eta defentsa hizkuntza berean gauzatu behar dira.

4.2. ZEINTZUK DIRA GRALa AURRERA ERAMATEKO IRIZPIDE NAGUSIAK?

Gradu amaierako lanak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:

- EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen irudi baitira.
- Hizketa inklusiboa erabiltzea, eta generoren ikuspegia txertatzea gizakiekin zerikusia daukaten lanetan.
- Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, pertsonen buruzko informazioa erabiliko da bakar-bakarrik akademikoki justifikatuta badago; eta, hala eginez gero, modu anonimoan erabiliko da, eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatuko da.
- Zainduko da GRALak EHUren IKD i³ hezkuntza ereduren arabera egitea.
- Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako GRALak egitea bultzatuko da.
- Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta GJHeK osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen ditzaie. Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:
 - Giza eskubideen eta oinarritzko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.
 - Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
 - Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
 - Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifiko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

4.3. ZEIN DA GRALerako PROPOSATZEN DEN EGITURA?

Gida honen sarreran aipatu den bezala, ikasleek GRAL mota desberdinak egin ditzakete, eta horren arabera egokitu beharko dute lanaren eskema. Orokorrean, egitura honi jarraitzea proposatzen dugu:

- Azala (eranskina eskuragarri webgunean)
- 20 lerroko laburpena (euskaraz, gaztelaniaz eta, ahal izanez gero, ingelesez). Laburpenean, lana indexatzeko asmoz, gehienez bost deskribatzaile adieraziko dira, hezkuntzan espezializatutako thesaurus batetik hartuta.
- Aurkibidea
- Sarrera
- Justifikazio pertsonala: zerk bultzatu duen egilea GRAL hau egitera
- Marko teorikoa: gaiaren garrantzia eta horren egoera (literatura zientifikoa)
- Helburuak
- Metodoa
- Emaizak
- Ondorioak
- Mugak eta hobekuntza proposamenak
- Erreferentziak
- Eranskinak

GRALa aurrera eramateko irizpide nagusien puntuan jaso den moduan, ikasleek beren lanaren inguruko gogoeta bat egin beharko dute printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina.

4.4. ZEIN DA GRALaren LUZERA ETA FORMATUA?

Lanak gehienez ere 40 orrialde izango ditu (azala eta eranskinak kontuan hartu gabe). Arial 11, EHUSans 11 edo EHUSerif 11 letra motak erabili beharko dira. Lerroarte 1,5 zentimetrokoa izango da eta marjinak 2,5 zentimetrokoak.

4.5. PLAGIOA EDO ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERABILERA

GRALa ebaluatzeko ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean *Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromisoa adierazpena* izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo.

GRALa jabetza intelektualari buruzko legeek babestutako lana da; jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da. Inoren pentsamendua behar bezala aipatzeak norberaren pentsamendutik bereizten laguntzen du, eta egindako irakurketen kalitatearen adierazgarri izateaz gain, pentsamenduaren sistematizazioaren ezaugarri ere bada. Era berean, ikasleak egindako analisi- eta sintesi-prozesuen kalitatea islatzen du.

Plagioari dagokionez, ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu,

norberak egin balitz bezala. Ikasleak derrigorrez zitazio-arauak (APA 7. edizioa) erabili beharko ditu.

Adimen Artifizial (AA) sortzailearen erabilerari dagokionez, [EHUren Adimen Artifizial Sortzailea Erabiltzeko Printzipio eta Gomendioak](#) (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2025) dokumentuak ezartzen duenez, AA tresnak erabil daitezke, baina erabilera gardena, etikoa eta arduratsua izan behar da. AA tresna horiek ezin dira erabili lanaren berezko sormen prozesua ordezkatzeko. Horregatik, GRALean AA tresnak (adib. ChatGPT, Copilot, Claude, etab.) erabili badira, nahitaezkoa da erabilera egokia egitea eta erabilera hori esplizituki adieraztea (Ikus 6. Eranskina).

Honako informazioa eman beharko da:

- Erabilitako tresnaren izena, bertsioa eta data.
- Zer funtzio bete duen lanaren garapenean (sormen, laguntza edo kontsulta).

Tresna horiek era desegokian erabiltzea, erabilera ezkutatzea edo erreferentziarik gabe txertatzea zuzentasun akademikoaren eta jabetza intelektualaren urraketa litzateke, eta EHUKo Etika Akademikoari buruzko Protokoloaren arabera, plagio gisa har daiteke.

4.6. ZER GERTATZEN DA PLAGIOA EDO ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERABILERA DESEGOKIA EGON DELA EGIAZTATZEN BADA?

Plagioa edo adimen artifizialaren erabilera desegokia egin dela susmatzen bada, EHUKo Etika Akademikoari buruzko protokoloa aplikatuko da. Protokolo horretan jasotzen denez, GRALaren prozesuan plagiorik egiaztatuz gero, suspentso kalifikazioa (0,0) emango dio lanari.

Horrez gain, ikasleak ezin izango du jarraitu ez aukeratutako gaiarekin ezta zuzendariarekin ere; ondorioz, prozesu osoa errepikatu beharko luke (automatizazioa prozesuan aukeratu beharko luke). Halaber, zuzendari berria jakinaren gainean jarriko litzateke.

ADDI PROZESUA

4.7. ZER DA ADDI?

Euskal Herriko Unibertsitatearen Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala da. Haren helburua EHUKo irakaskuntzaren eta ikerketaren ekoizpen intelektuala sarbide irekiaz antolatu, artxibatu, zaindu eta hedatzea da. Beraz, ADDIn gordetzen dira doktorego tesiak, Master Amaierako Lanak (MAL), Gradu Amaierako Lanak (GRAL), zientzia-artikuluak, monografiak, liburuetakoko kapituluak, irakasmaterialak, etab. Bi sistema daude: ADDI akademikoa eta ADDI publikoa.

4.8. ZER DA ADDI AKADEMIKOA?

ADDI akademikoa defentsari begirako zeregin administratiboak aurrera eramaten ahalbidetzen du; defentsa-epealdi bakoitzean aurkeztuko diren GRAL guztiak ADDI akademikoan gordeta geratuko dira.

4.9. NOIZ IGO BEHAR DA LANA ADDI AKADEMIKORA?

Zuzendariak GAURren ikaslearen ebaluazio txostena igotzen duenean, ikasleak bere lana ADDIra igotzeko mezu bat jasoko du; ADDIra zuzendariarekin adostutako azken bertsioa igo behar da. Behin ikasleak urrats hori emanda, eta zuzendariak ikasleak igotako lana balidatu duenean, GRALa gordailu ofizialean geratuko da: epaimahaikideek ikusgai izango dute defentsa gauzatu baino lehenago.

4.10. ADDI AKADEMIKORA IGO BEHARREKO LANAREN BERTSIOAREKIN KONFUNDITUZ GERO, POSIBLE AL DA ZUZENTZEA?

Bai, zuzendariak balidatzen ez badu, posible da hori zuzentzea; honelako kasuetan gomendagarria da zuzendariari mezu bat bidaltzea akatsaz ohartarazteko.

4.11. ZER DA ADDI PUBLIKOA?

ADDI publikoak sarbide irekia eskaintzen duen sistema da; honetan, ikasleak horretarako baimena sinatzen badu (4. eranskina), 9 edo kalifikazio altuagoa eskuratzen duten lanak agertuko dira.

DEFENTSA

4.12. ZEINTZUK DIRA DEFENTSA ESKAERA EGIN AHAL IZATEKO BALDINTZAK?

Defentsa-eskaera GAURren gauzatu ahal izateko, 228 kreditu gaindituta (eta kalifikazioak espedientera pasata) eduki beharko dira; hau da, GRALa ezik, graduako beste kreditu guztiak gaindituta eduki behar dira.

4.13. ZEIN DA AHOZKO DEFENTSA AURRERA ERAMATEKO PROZEDURA?

Ikasle bakoitzak gehienez ere 20 minutu izango ditu aurkezpenerako; honen garrantzia kontuan hartuta, ikasleak, eskainitako denboran, ahalik eta ondoen azaldu beharko ditu GRALean landutako puntu nagusiak, bere ekarpen originalak nabarmenduz. Bukatu ostean, epaimahaikideen galderei, oharrei edo iradokizunei erantzungo die.

Gomendagarria da ikasleak epaimahaikideek baliatuko duten errubrika kontuan hartzea bere aurkezpenera ahalik eta ondoen bideratzeko.

4.14. AHOZKO DEFENTSAREN GRABAZIOA ESKA DAITEKE?

Bai, ahozko defentsak ebaluazio proba publikoa da eta ikasleek eskubidea izango dute ebaluazio proba grabatzea eskatzeko; horretarako, 5. eranskina bete beharko dute eta zuzendariari helarazi beharko diote defentsa eguna baino 48 ordu lehenago.

4.15. EPAIMAHAIAREN ANTOLAKETARI DAGOKIONEZ, ZENBAT DENBORA GOMENDATZEN DA IKASLE BAKOITZEKO?

Kontuan hartuta aurkezpenera eta ahozko defentsaren 20 minutuak, ondoren galderak, oharra edo iradokizunak egiteko, eta baita ezinbestekoak diren dokumentuak prestatzeko, gomendatzen da epaimahaiak gehienez 45 minutu hartzea ikasle bakoitzeko.

EBALUAZIOA

GRALaren ebaluazio prozesuan zuzendariak eta epaimahaiak parte hartzen dute, eta honako era honetan gauzatzen da ebaluazioa:

4.16. ZER EBALUATZEN DU GRALaren ZUZENDARIAK?

Zuzendariak kontuan hartuko du ikaslearen parte hartzea lanaren planifikazioan, segimendu mintegietan eta tutoretza saioetan. Alde horretatik, kontuan hartu beharko dira unibertsitateko araudiek eta ikastegi barruko akordioek ezartzen dituzten ikasleen egoerak. Era berean, hasierako txostena eta segimendukoa baloratzeko, kontuan hartuko dira zuzendariaren ebaluazio txostenean dauden adierazleak.

4.17. ZER EBALUATZEN DU EPAIMAHAIKIDEAK?

Aurkezpena eta defentsa ebaluatzeko, epaimahaiak Epaimahaikideen Ebaluazio txostenak kontuan hartuko ditu (2. eranskina). Honi dagokionez, epaimahaikide bakoitzak bere ebaluazio txostena bete beharko du. Azkenik, epaimahaian adostutako kalifikazioa Epaimahaiaren Aktan jasoko da (3. eranskina).

Azpimarratu beharrekoa da GRALaren zuzendaria epaimahaikidea dela eta, defentsa eguna baino lehen, GRALaren egutegian jasotako datetan, Zuzendariaren ebaluazio txostena GAURrera igo beharko duela (1. eranskina).

4.18. NOLA LORTZEN DA GRALaren AZKEN KALIFIKAZIOA?

GRALaren azken kalifikazioa era honetan lortzen da:

- Zuzendariaren ebaluazio txostena: % 40
- Epaimahaikideen ebaluazio txostena: % 20 epaimahaikide bakoitzarena, guztira azken kalifikazioaren % 60.

GRALa gainditu ahal izateko, zuzendariaren ebaluazio txostenak eta bi epaimahaikideren txostenek aldekoak izan behar dute.

Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kualitatiboa adieraziko da:

- Ez aurkeztua (EA)
- 0,0 – 4,9: Gutxiegi (G)
- 5,0 – 6,9: Nahikoa (N)
- 7,0 – 8,9: Oso ongi (OO)
- 9,0 – 10: Bikain (B)

4.19. ZEIN DA OHOREZKO MATRIKULA PROPOSATZEKO PROZEDURA?

Azken kalifikazioari dagokionez, eta zuzendariaren kalifikazioak horretarako aukera emango balu, **epaimahaiak ohorezko matrikularen proposamena egin dezake Epaimahaiaren Aktaren bidez**. Horrez gain, zuzendariak galdetegi bat bete beharko du eskaria justifikatzeko (Forms edo antzekoa).

Ondoren, erabakia hartzeko, GRALerako Dekanordetzak kontuan hartuko du Gradu Amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiak dioena: defentsa-epe bakoitza amaituta, ikastegiak “ohorezko-matrikula” eman ahal izango die 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei, baina beti ere gehienez kalifikaziorik onena lortu duten ikasleen % 5ari.

Ohorezko matrikula esleitzeko, bi irizpide hauek izango dira kontuan hartuko direnak, eta agertzen diren ordenean:

1. Epaimahaiaren Aktan jasotako azken kalifikazioa
2. Espediente akademikoa

4.20. ZEIN DA GRALa ADDI PUBLIKOAN AGERTZEKO PROZEDURA?

Aurretik aipatu den moduan, GRALak 9 edo kalifikazio altuagoa eskuratzen badu, ikasleak erabaki beharko du ea nahi duen lana ADDI publikoan agertzea; baiezkoa izatekotan, ikasleak sinatu beharko du hori baimentzeko beharrezkoa den dokumentua (4. eranskina).

4.21. ZEIN DA GRAL KALIFIKAZIOA BERRIKUSTEKO PROZEDURA?

GRAL berrikuspenak edo erreklamazioak EHUko Ebaluazio Arautegia jarraituz egingo dira; ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, lehenengo instantzian berak egingo du eta, horrekiko desadostasunik egongo balitz, bigarren instantzian ikastegiko Erreklamazio Batzordeak ebatzi beharko luke; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari.

5. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. Zuzendariaren ebaluazio txostena



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ZUZENDARIAREN EBALUAZIO TXOSTENA

ZUZENDARIA:

IKASLEA:

GRADUA:

1. GAIA AUKERATZEA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1.1. Lana gidatzeko galderak eta helburuak proposatu ditu										
1.2. Lana gidatzeko galderen eta helburuen arteko loturak egin ditu, eta bere aurreko bizipenekin, esperientziekin eta hausnarketekin ere loturak bilatu ditu										
1.3. Gaia lantzeko eskema egin du										
1.4. Gaiaren deskriptore giltzarriak zehaztu ditu										
1.5. Marko teorikoa eraikitzeko bilaketaren historiaa deskribatu du eta egoki justifikatu ditu aukeratutako erreferentziak										
BALORAZIO OROKORRA										

2. PLANGINTZA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.1. Lanaren egitura definitu, ordenatu eta justifikatu du										
2.2. Zuzendariarekin adostu ditu faseak eta kronograma										
2.3. Gaiaren garrantzia edo interesa justifikatu du, balizko aplikazio arloarekin harremanetan jarritz										
2.4. Lanaren fase bakoitzean erabili beharreko baliabideak aurreikusi ditu eta modu arrazoituan azaldu ditu										
2.5. Erabiliko duen metodologia aurkeztu du										
BALORAZIO OROKORRA										

3. GARAPENA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3.1. Lana gidatzeko galderak eta helburuak kontuan hartuta, ondo aukeratu du informazioa										
3.2. Marko teorikoa aberatsa da eta egungo erreferentzia nagusiak jasotzen ditu										
3.3. Diseinua eta asmoak behar bezala zehaztu ditu										
3.4. Datuak (halakorik bildu badu) aztertu ditu eta interpretatu ditu										
3.5. Argi aurkeztu ditu emaitzak eta ondorioak										
3.6. Lanaren mugak aurkeztu ditu eta etorkizunerako lanak proposatu ditu										
3.7. Diskurtso koherentea egin du eta estilo akademikoz idatzi du lana										
3.8. Erabilitako argumentazioaz, kritikarako eta hausnarketarako gaitasun egokia erakutsi du										
3.9. Entseguan aurkezpen ordenatua egin du eta gero egoki erantzun die egindako galderei edo oharrei										
BALORAZIO OROKORRA										

OHARRAK:

.....
.....
.....
.....
.....

KALIFIKAZIOA

Vitoria-Gasteizen, 20....ko.....ren.....(e)an

Zuzendariaren sinadura

2. ERANSKINA. Epaimahaikidearen ebaluazio txostena



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EPAIMAHAIKIDEAREN EBALUAZIO TXOSTENA

GRADU AMAIERAKO LANA – AURKEZPENA ETA DEFENTSA										
Epaimahaikidea:										
Ikaslea:										
Gradua:										
Izenburua:										
Zuzendaria:										
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1. Lana estandar akademikoen arabera da, eta GrAL Gidaren puntu nagusiak betetzen ditu										
2. Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia izan da, bai lanean eta baita aurkezpenean ere										
3. Lanaren aurkezpena aberastu du bestelako baliabide komunikatiboak (ez-hitzezkoak) erabiliz										
4. Denbora ondo kudeatu du, lanaren atal edo puntuen garrantziaren arabera										
5. Epaimahaikideek egindako galderen garrantziaren arabera antolatu ditu erantzunak edo, bestela, irizpide koherente baten arabera										
6. Interesez eta begirunez hartu ditu galderak, eta uneoro testuinguru akademikoari dagokion bezala jokatu du										
ZENBAKIZKO KALIFIKAZIOA										
OHARRAK										

Vitoria-Gasteizen, 20.....ko.....ren(e)an

Sinadura

3. ERANSKINA. Epaimahaikidearen akta



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EPAIMAHAIAREN AKTA

IKASLE JAUNA/ANDREA:

GRADUA:

GrALaren IZENBURUA:

Goian adierazitako GrAL Epaimahaiak, ikasleak defentsa egin ostean eta egin zaizkion galdera eta/edo iradokizunak erantzun ostean, honako kalifikazio hau ematea erabaki du: _____

Era berean, zuzendariak idatzizko txostenari emandako kalifikazioaren _____ eta epaimahaiak emandakoaren arteko batez bestekoa egin ondoren, **honako hau da azken kalifikazioa:** _____

Azken kalifikazioa kontuan hartuta, eta **epaimahaiak ahobatez adostuta, ohorezko matrikularen proposamena** bideratzea erabaki da¹: BAI / EZ

Vitoria-Gasteizen, _____ ko _____ ren _____ (e)an

EPAIMAHAIBURUA:

Sin.:

IDAZKARIA: _____

Sin.:

EPAIMAHAIKIDEA: _____

Sin.:

IKASLEA: _____

Sin.:

¹ Ezinbestekoa da epaimahaiak ohorezko matrikularen eskaera justifikatzeko galdetegia (Forms) betetzea

4. ERANSKINA. GRALa ADDI publikoan agertzeko baimena

Baimena lan akademikoen zabalkunde eskubideak lagatzeko ADDIri, UPV/EHuren gordailu instituzionalari

Nik, ... jaunak/andreak, ...
NAN zenbakidunak, UPV/EHuri banatzeko lizentzia ez-esklusiboa hurrengo lana gordailu instituzionalan erreproduzitzeko eta publikoki komunikatzeko ematen diot:

Izenburua	
Egilea/laslea	
Zuzendaria(k)	
Titulazioa / Masterra	

Adierazi lan mota:

- ☐ Gradu-amaierako lana
☐ Master-amaierako lana

Dokumentu honekin baimena ematen diot ADDIri honetarako :

1. Nire lana guztien esku jar dezan ADDIren bitartez.
2. Egokitzapen teknikoak egin ditzan, neurri aldetik beharrezkoak badira lana modu elektronikoan eskaini ahal izateko.
3. Baimena ematen diot, halaber, nire lana modu honetara zabal dezan:

[Jarri X bat BAKARRIK nahiago duzun aukeran]

- () **"Aitortu - EzKomertziala – PartekatuBerdin"** CC lizentziaren bidez
[lanaren erreprodukzioa, hedapena eta zabalkunde publikoa egiteko aukera ematen du, baita lan eratorriak sortzeko ere (itzulpenak eta abar)]
- () **"Aitortu - EzKomertziala – LanEratorririkGabe"** CC lizentziaren bidez
[lanaren erreprodukzioa, hedapena eta zabalkunde publikoa egiteko aukera ematen du, baina ez lan eratorriak sortzeko (itzulpenak eta abar)]
- () CC lizentziarik gabe[ana erabil daiteke soil-soilik [Jabetza Intelektualaren Legean](#) aipatutako moduan]

Baimena eman arren egile eskubideak ez dira lagatzen modu eskusiboa, eta ohikoak diren era guztietan erabili ahal izango da lana.

Baimen hau indarrean egongo da UPV/EHU gorago adierazi den dokumentu ofiziala idazten ari den bitartean. Dokumentu hori prest egongo denean, sinatu egin beharko du egileak.
Lana bost urterako lagako da hasiera batean, baina lagapena modu automatikoa luzatuko da bost urterik bost urtera, baldin eta lanaren egileak ez badu adierazten beren beregi ezeztatu egin nahi duela.

Aitortzen dut neu naizela dokumentu honetan aipatzen den lanaren egile eskubideen jabea eta aitortzen dut, era berean, lortu dudala beharrezkoa den baimena neuk egin ez ditudan lanak (argazkiak, irudiak eta abar) ager daitezen bertan.

OHARRA: Zer dakar Creative Commons lizentzia batek? Lizentzia hauek hedapen irekiari eta [Open Source Initiative](#) delakoari lotuta daude, eta ez dakarte egile-eskubideei uko egitea. Lizentzia horien helburua beste bat da: obren hedapena eta erabilpena erraztea, argitaletxeenak bezalako ohiko lizentzia komertzialek ezartzen dituzten mugei kontrajarrita. Hala ere, lizentzia desberdinak daude eta autore bakoitzak aukera dezake bere obrari zein lizentzia ezarri (baldin eta ustiapen eskubideak baditu). Irekienak obraren edozein ustiapen onartzen du, merkataritza helburua duena barne, eta baita ondorioztatutako obrak sortzea ere. Kontrako muturrean, aldiz, mugatzaileenak ez du baimenik ematen obra eratorriak sortzeko (itzulpenak, adibidez), eta jatorrizko obraren ustiapen komertziala ere galarazten du. [Web](#) honetan Creative Commons lizentzia motei buruzko informazio gehiago topatuko duzu.

5. ERANSKINA. GRALaren defentsa grabatzeko eskaera



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GRALaren DEFENTSA GRABATZEKO ESKAERA

Zuzendari jauna/andrea: _____

Ikaslearen izen-abizenak: _____ NAN: _____

GRALaren izenburua:

GRALaren defentsa prozesuaren ikus-entzunezko grabazioa eskatzen eta baimentzen dut.

Vitoria-Gasteizen, _____ko _ren _____(e)an

Ikaslearen sinadura

6. ERANSKINA. AA erabilera deklaratzeko eredua.



AA SORTZAILEAREN ERABILERAREN AITORPENA

Erabilitako tresna: _____

Bertsioa / Kontsulta data: _____

Erabilpena (dagokiona adierazi):

- ☐ Testua sortzea
- ☐ Birformulazioa
- ☐ Itzulpena / Zuzenketa
- ☐ Egitura iradokizuna
- ☐ Laguntza metodologikoa
- ☐ Beste batzuk

Erabileraren deskribapen laburra:

“ _____ ”

Egiletza-konpromezua:

Sortutako eduki guztia pertsonalki berrikusi, berrlandu eta baliozkotu dela baieztatzen dut.

Sinadura: _____